



## SEGURAKO UDALEKU IREKIAK 2025

### BEGIRALEEN IZEN-EMATEA

2025eko UDALEKU IREKietan hezitzaile lanetan aritzeko deialdia luzatzen dizuegu. Hautagaiek bete behar dituzten **ezinbesteko irizpideak** honako hauek dira:

- 1)** 16 urte beteta izatea 2025eko ekainaren 29an.
- 2)** Euskara ezagutza eta erabilera maila altua izatea.
- 3)** Mutiloa, Segura edo Zerainen erroldatuta egotea.

**Behin, aurrez aipatutako baldintzak beteta, aukeraketa puntuazio gehien dutenen artean egingo da:**

- 18 urte beteta izatea (2 puntu)
- HABE 3. Maila C1, EGA edo baliokidea izatea (2 puntu)
- Seguran erroldatuta egotea (2 puntu)

**Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak izatea: magisteritza, pedagogia, psikologia, gizarte-hezkuntza, gizarte integrazioa...**

- Gradua izatea (6 puntu)
- Goi-maila izatea (5 puntu)
- Erdi-maila izatea (4 puntu)
- Begirale titulua izatea (6 puntu)
- Koordinatzaile-zuzendari titulua izatea (8 puntu)

\* Aipatutako ikasketak burutzen aritzeak titulazioaren puntuazio erdia balioko du.

**Kontuan hartuko diren beste puntu batzuk:**

- Herriko Gaztelekuan, antolakuntza eta koordinazioan partaide izatea (6 puntu)
- Segurako udako aisialdian aurretik aritu izana (3 puntu)
- Herriko haur eta gazteen gainontzeko aisialdiko ekintzetan parte-hartzen dutenak (2 puntu)

Lanean hasterako **Udalak antolatutako lan-aurreko formakuntzak osotasunean jaso eta gainditu beharko dira.**

**\*Berdinketa kasuan, Seguran erroldatuta dagoenak lehentasuna izango du. Segurako artean berdinketa balego, zozketa egingo da (grabatuta).**

Izen-emateko bidali curriculum-a [gazteriasegura@gmail.com](mailto:gazteriasegura@gmail.com) helbidera, maiatzaren 23rako. Aurkeztu beharrekoak: curriculum-a, titulu edo agiriak, NAN, osasun txartela eta sexu izaerako delituen ziurtagiria. Curriculum-ean jasota dagoena bakarrik baloratuko da.

**Aukeratuen zerrenda ekainaren 6an jakinaraziko da whatsapp bidez.**

Seguran, 2025eko maiatzaren 12an.